


LEKU INTERESGARRIAK

- 1 Lamera Parkea
- 2 Kofradia Zaharra (San Pedro)
- 3 San Pedro Arrantzaleen kofradia
- 4 Gazteluko Begiratokia
- 5 Santa Eufemia eliza
- 6 Portuzarra
- 7 Goizeko Izarra
- 8 Ertzilla Dorrea / Arrantzaleen Museoa
- 9 Iturri Biak
- 10 Baztarre
- 11 Nautika Eskola
- 12 Tala
- 13 Sanjuanportale
- 14 Doniene kaleko etxeak
- 15 Santa Maria eliza
- 16 Udaletxe:
- 17 Frantziskotarren eliza eta klaustroa

ESKULTURAK

- A Alonso Ertzilla (Javier Soto)
- B Badatoz (Enrike Zubia)
- C Azken olatua, azken arnasa (Enrike Zubia)
- D Olatua (Nestor Basterretxea)
- E Itzulera (Casto Solano)
- F Benito Barrueta (Nestor Basterretxea)
- G Jesusen bihotza (Joaquin Lucarini)
- H Arrain-saltzaileak (Enrike Zubia)
- I Taraska
- J Baserritarrak (Enrike Zubia)
- K Hilariak (Nestor Basterretxea)
- L Hilargi amandarearen mamuak (N. Basterretxea)
- M Euskal Kosmogonia (Nestor Basterretxea)
- N Xixili (José Luis Butron)



● Leku interesgarriak	— Gomendatutako ibilbidea
▽ Eskulturak	- - - Eskailerak
● Horma irudi artistikoak	— Eskailerarik gabeko ibilbidea
i Informazio-panelak	- - - Aparkalekurako sarbidea
i WC	

1 Lamera Parkea

Gaur egun aisialdiko tokia, lehen itsasontziak haien kargarekin heltzen ziren tokia 1905. urtera arte. Lameratik ikusgai arrantza industriaren interesguneak: izozteko planta, aroztegia, kar-roak... hegoaldeko kaian kokatuta daude.

2 Kofradia Zaharra (San Pedro)

1993an kofradia berria irekitzerakoan hegoaldeko kaian, hau bertan hera gelditu zen. Antzinean arrain erosleei deitzeko erabiltzen zen sirena gaur egun Arrain Azokan (maiatzean), Madalen Egunean (uztailaren 22an), Erregeen Kabalgatan (urtarrilaren 5ean) eta erresaka egunetan itsasontzien jabeen portuan dagoen arriskuaz ohartzeko baino ez da entzuten.

3 San Pedro Arrantzaleen kofradia

Arrantzaleen eta handizkarien arrain salmenta puntua, sektoreko profesionalen soilik irekita.

4 Gazteluko Begiratokia

Eupeme Deuna izeneko plazatxo igaro eta gero, ziur aski herriko plazatxoetatik politenatarikoa dena, begiratoki honek portuko ikuspegi zoragarria eskaintzen digu. Hegoalderantz begiratzerakoan Kikunbera etxea ikusten da, euskal errazionalismo motakoa eta itsasontzi bat gogoratzen diguna.

5 Santa Eufemia eliza

Portuko eliza modura ezagutzen dena (kokapena dela eta), edo zin eliza bezala (Bizkaiko jaun-andreek bizkaitarren eskubideak aitortzen zituzten tokietariko bat). Bermeoko elizarik zaharrena da, eta era berean txikiena, uharte batean kokatuta baitago, nahiz eta gaur egun inguruko urbanizazioarekin bat eginda dagoen.

6 Portuzarra

Fatxaden koloreak oso deigarriak dira eta eraikin gehienetako etxebizitzetara sartzeko kanpoko eskailera batez baliatu behar da. Pantalanetako zutabeen marrazkiek, XX. Mendeko bapor-itsasontziak gogoratzen dizkigute, bapore horien tximiniak antzerako irudiak zeuzkaten eta.

7 Goizeko Izarra

San Pedro kofradiatik kanpo sortutako kofradia 1908. urtean, baina hiru urte baino iraun ez zuena. Plaka bat mantentzen da sortze urtearekin eta izenarekin.

8 Ertzilla Dorrea / Arrantzaleen Museoa

Arrantza mundua ezagutu nahi dutenek derrigorrez bisitatu behar dute museo hau, ziur oso gustukoa izango dutela. Informazio gehiago: web.bizkaia.eus/eu/-/bermeoko-arrantzaleen-museoa edo telefono honetan: 94 688 11 71. Dorretxea Ertzilla sendiarena izan zen, eta euren artean ezagunena Alonso de Ercilla y Zuñiga, La Araucana olerkia idatzi zuena.

9 Iturri Biak

Espainiako Carlos I.aren sasoikoa. XVI. Mende bukaerakoa eta mantentzen den Bizkaiko iturrik zaharrena. Hiru armari dauzka: Bermeokoa, inperiokoa eta Bizkaikoa. Portuzarreko iturrik nagusia zen 1827. urtera arte, lurrikara baten ondorioz sikatu egin zen eta. Bertan garbitzen ziren sareak, belak, arrainak...

10 Baztarre

Itsasoko bista izugarriak, batez ere Izarorenak, antzinean frantziskotarren komentu bat egon baitzen bertan, gaur egun aztarnak besterik gelditzen ez diren arren. Uztailaren 22an Madalen Eguna ospatzen da uhartea Bermeorena dela baieztatzeko eta herriko mugak adierazteko.

11 Nautika Eskola

Andra Mari kalearen goiko aldean dago, Alde Zaharreko kale nagusia izandakoa.



Lamera Parkea



Kofradia Zaharra



Arrantzaleen kofradia



Ikuspegi Gaztelutik (Kikunbera etxea)



Santa Eufemia eliza



Portuzarra



Iturri Biak



Goizeko Izarra



Ertzilla Dorrea / Arrantzaleen Museoa

12 Tala

Itsaslabbarraren ertzean dagoen parke zoragarria itsasoa bisitatzeko lekurik egokiena dena: Matxitxako lurmuturra (IS), Ogoño lurmuturra (E), Izaroko uhartea (E) eta Gaviota gas plataforma (I). Gune honetan zuhaitzak, aire librean jateko mahaiak eta txinboak daude. 60 metroko horma-irudi bikain batek Erdi Aroan baleen arrantza azaltzen du.

13 Sanjuanportale

Sanjuanportalean San Juan Lepomoztuaren altaraxoa dago, eta lurreko harri batean leiendak dinoen bezala, San Juanen oinaren marka bat dago, badirudielako San Juan hiru trankotan heldu zela Gaztelugatxera, eta Gaztelugatxeko eskailarako azkenengo mailetan hirugarren trankoaren harria aurkitzen digu. Sanjuanportale harresiaren zutik gelditzen den ate bakarra da.

14 Doniene kaleko etxeak

Bermeoko zaharrenak dira.

15 Santa Maria eliza

Bizkaiko arkitektura neoklasikoko erreferente garrantzitsuenetarikoa da. Aipatzekoak dira elizaren kupula eta Pablo Urangaren freskoak. 1912ko abuztuaren 12ko Galarrenean ito ziren 114 arrantzaleen funeralak bertan izan ziren.

16 Udaletxea

Bi eguzki erloju fatxadan. 2013an Alde Zaharrean izandako sutearen ondorioz edifizio guztia berriztu da.

17 Frantziskotarren eliza eta klaustroa

Hirigunean dagoen klaustro bakarrenetarikoa. 1983ko uholdeetan eliza eta klaustroa hondatu ziren, eta elizaren barruan urak 2 metro baino gehiagoko altuera izan zuen. Irekita egun osoan zehar, leku lasaia. Elizeko eskerraldeko atzeko kapilana, Gaztelugatxeko San Juaneko badiaren hondoan dagoen Begoñako birginaren eskulturaren kopia bat dago.



Baztarre Begiratokia



Nautika Eskola



Sanjuanportale



Doniene kaleko etxeak



Tala



Udaletxea



Santa Maria eliza



Frantziskotarren eliza eta klaustroa


Bermeoko armariak hainbat informazio eskaintzen digu:

- Agurearen buruak adierazten du Bermeo Bizkaiko buru izan zela 1476tik 1602ra, gero buru izaera hori Bilbok eskuratu zuen.

- Bi otsoak Haro familiaren ezaugarriak dira, Bermeori XIII. mendean fundazio agiria eman ziotenak.

- Traineruak eta baleak adierazten dituzte bermeotarren bizimodua, bale arrantza erdi aroko aktibitate ekonomiko nagusia izan zen.

- Latinezko testuak itzulpen bi eduki ditzake: "Lehenengo moduan agertzen dena" edo "lehenengo armaria, Bermeorena". Testu honek Bizkaiko beste herri guztien aurrean Bermeok zeukan nagusitasuna adierazten du.



EUSKADI
BASQUE COUNTRY

www.turismo.euskadi.eus

urdaibai
basque reserve

www.turismourdaibai.com